

## Aitzol Atutxak bigarren egin eban Urrezko Aizkolari Txapelketan

11. orrialdea

## "Musikasua" Areatzan

Ikuskizun honek Areatzako Bandaren musika eta Astondoa Pirotekniako suak buztartzen ditu. Hilaren 20an izango da Areatzako Sakramentinoen parkean, 22:30etik aurrera. Paula Perez Buenok zuzenduko dau banda eta, besteak beste, John Williamsek eta Ennio Morriconek filmetarako konposatutako doinuak joko dabez. 13. orrialdea



## XVIII. Auzorik Auzo mendi martxea Artean hilaren 22an

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 210

2014ko bagilaren 17a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Udalekuak eta beste aukera asko udan

Eskualdeko udal gehienak udako programazino berezia eskeintzen dabe ume eta gazteentzat: udaleku irekiak, Arratiatik kanpoko egonaldiak, txangoak, tailerrak eta lagun barriak egiteko aukerea.

**H**erri handienak, eskeintza zabala daukie, ume eta gazteentzat edadearen arabera. Holan, Lemoan kasurako, txikirrenentzako ludotekatik hasita, unibersidadeko ikasleentzat zuzendutako Memoria Historia errekuiperatuko auzolandegietan parte hartzeak aukerea daukie. Igorren be, eskeintza zabala da, Zaztaparrak taldearen eskutik datorrena. Talde honek Igorre eta Zeberio udako programazinoak garatuko dau.

Espeleologia, piraguismo, eskalada, paddle, surf, uger egin, bizikletan ibili, mendira joan, futboleko jokatu, Europa ezagutu, hizkuntzak praktikatu... uda luze bat daukie umeak eta gazteak aurrean, esperientzia barriez beteko dana. 8. eta 9. orrialdeak



Igazko Zaztaparren udalekua.

Argazkia: Zaztaparrak.

### ARRATIA

## San Juan eta San Pedro jaiak

Bete-betean sartu gara jaietan, San Juan eta San Pedro jaiak ospatuko dira hamabostaldi honetan. San Juan suak auzoetan eta kaleetan be biztuko dira, eta Bedia eta Ubideko herriko jaiak dira. Sanpedroak Arantzazu eta Dimako jaiak dira. Jai honeetako egitarauak dakarguz BEGITUN. 5. eta 7. orrialdeak



### ARRATIA

## Aldarte alkartearen aurkezpena

Hilaren 19an, Areatzako Udal Aretoan Aldarte alkartearen aurkezpena izango da, Arratiako Udalen Mankomunidadeak abiatutako Sexu Askatasunaren aldeko Eguneko kanpainaren barruan.

Bestalde, Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzua genero indarkeriari eta eraso sexualai aurre egiteko Plan Integrala egiten dago eta Arratiako hedabideakaz jardunaldi bat egin eban, indarkeria horren gaineko informazinoak emoteko moduaren gainean hausnartzeko. 7. orrialdea

**E P A**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, bagila osoa.  
Tlfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

### ARRATIA

## Mobilizazinoak industrian

Incoesan, epailearen atzen autoak beharginen kaleratzeak bidezko moduan tratetan dauz, lege erreformeak horretarako bidea emoten dualako. Alfus FCCk espedienteak aurkeztu dau beharginak kaleratu eta enpresea zarratuteko. Ormazabalen etendura espedienteak ezarri dabe eta Negarran 30 behargin kaleratu ditue.

Enpresen egoera ikusita, bagilaren 12an manifestazinoak egon zan Igorren enplegua eta industriaren defentsan, LAB sindikatuak deituta. 6. orrialdea

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskeraz zein erderaz  
Agirre Lehendakaria 11, 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxe 94 673 70 83  
E-posta: uzuluaga@gmail.com



**ARRATIA ZURI-BALTZEAN**

**JON MIKEL  
ARRATIA  
AGARRE (III)**

Bere ikasketak, Doktoretza lortu arte, Erroman jarraitu ebazan. Laster Kataluniara joan zan eta 1909ra arte Cerverako Unibersidadean Teologia irakasle izan zan.

Limako Apezpikuaren eskariz Perura joango da eta Apaiztegia Teologia irakasle izango zan. Holan 1910ean Limatik Euzkadirako: "Defensa del Analisis y corrección del Pater Noster del euskera usual" idazten dau eta beste artikulu asko.

Peruko "Seminario Central"eko

1919tik 1922ra arte Errektorea izango da. Bere ospea irakaskuntzan gero eta handiagoa izan zan eta Hezkuntza Ministeriokoak, oho-rezko "Palmas Magistrales" izentapena emongo deutsie.

Mundu barrian egon arren, bere ama lurra eta bere hizkuntzea beti gogoan eukiten ebazan eta sarritan parte hartuko dau Euskal Herriko aldizkarietan, holan agertu zanean "Euzkerea"-n artikulu hau idatzi eban: "Antzineko adizkidiok". Eusko Ikaskuntzan bazkidea zan. Jaungoikozalaren harpideduna, eta Zaitetik 1936ko Gerra ondoren Euzko Gogoa argitaratu ebanean han agertu zan bere izena Agirre Lehendakariaren alboan. Dimoztar



jator honek bildutako kantak, "Cancionero Popular del Pais Vasco" izenez lau aletan argitaratu ziran Auñamendi Bilduman, 1968tik hasita.

Peruko uriburuan gure arratiar jakintsuak 1956an mundu hau itxi eban, eta Bonifazio Latxa Agirre (1874-1909), Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1874-1939), Jon Mikel Atutxa Bustintza (1877-1956), Saturnino Soloeta Iturrondobeitia (1881-1964), Antselmo Totorika Etxebarri (1882-1960), Juan Gurutz Ibagutxi Agirre (1883-1969)... Arratiako idazleen artean ohorezko leku bat euki behar dau.

**Iñaki Esparza**

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Bagilaren 16tik 22ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**  
Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.  
**Bagilaren 23tik 29ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**  
Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
**Bagilaren 30etik garagarilaren 6ra**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**  
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15  
**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01  
**Parketxea**  
94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51  
**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90  
**Trenak**  
Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.  
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.  
Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**  
Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.  
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.  
**Zeberio-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.  
Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.  
Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.  
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.  
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.  
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefonoa:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.beginu.org](http://www.beginu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Irati Urien.  
**Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga.  
**Publizidadea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketeta:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkonde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 6.800 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Xorokilen kanterarik ez!

Eguzkiola eta Xorokileko kobak, arrazoi nahikoa dira harrobi handiako barrien egitasmoa bertan behera geldituteko. Zergaitik? Oso argi esanda; Zeanuri, bere herritarrak eta jentartea, jeneralean, irabazten aterako litzatekelako ezelango zalantza barik.

Izan be, Eguzkiolako koban badakigu danok 70eko hamarkadan 4.000 urte inguruko datazinoa daukien giza arrastoak topau zirala. Hori gitxi ez, eta ointxe 4.000 urte gure herri eta ingurune honeetan bizi ziran giza-kiak Eguzkiola euren hilobi moduan erabili ebela frogatua izan da. Hori gitxi ez eta mitikoa suertetan jakun haitzuloetako hartz baten aztarnak topau dira ondoan dagoan Xorokilgo koban. Eta hori guztia, ginetik egindako azterketa arin batzuen ondorioz jakin dogu, ondino ez dira-eta kobak sakonean aztertuak izan.

Garrantzi kultural itzela aitortuko leikiok mundu mailan holango aurkikuntza bateri. Ondino gehiago, bertoko herritarrak ondare hori gehiago aztertu, bereganatu, jagon eta transmitidutean egingo leuki ahalegina; "entzuizu laztana... bada hantxe, Gorbeien azpien, Saldrapotik harantz ta Ubide baño lenau, Euskola geitzeotsien koba bat. Bituixu hantxe gordeturiez geure arbasoak auren hildakoak... jagoixuz paraje hareik, nondik gato-

zen akordazoten doskue ta, geure ingurueri errespetue iziten erakutsi eta aurrerantzean be hemen jarraituten erakutsikuskue ta...".

Inork pentsau ahal dau geure ondareari bultzada bat emoteak zelango aberastasun personal eta sozialak ekarriko deuskuzan? Aberastasun ekonomikoak, pentsetan hasi ezkerro, Ipar Euskal Herrian eta Frantzia egiten daben moduan, jakintzearen turismoaren bidetik adibidez.

Baina hemen ez. Hemen sano aberatsak diran enpresa ase-ezinai parau barik emon behar jakie jatekoa. Harrobiak zabaldu eta jentarte moduan aberasten eta kohesioetan gaituen ondare sozialen ginetik pasetako permisoak ezkutuan eta bape be lotsa barik emoten dira.

Izan be, gaur egun legeak egin eta desegiten dira ia inortxo be konturatu barik, baina beti be handi-mandi batzuen intereserako. Hainbestetan pasau jakuz holangoak, ze herritarrok pentsetara heldu gara, holango gauzai ezin deutsegula bueltarik emon.

Ostean begiratu egizue; Zeanuriko Udalak berak, Eguzkiolako kobea bere Ondare Historiko eta Arkitektonikoaren barruan zerrendatuten dau. Eusko Jaurlaritzak "arkeologia susmoko" koba moduan definitu eta honek daukazan babesak aitortuten deutzaz. Natura aldetik Gorbeia Parke Naturala eratu eta bere ingurunea babestu gura izan zan, Urkiolako Parke Naturalagaz basabizitzaren lotura eta joan etorriako korredore ekologikoak definitu ziran, Europa mailan naturgune garrantzitsuen babeserako lekuak zerrendatu eta legezko babes sare

bat eratu zan, mehatxatutako espezieak izentau eta euren bizilekuak babesteko legeak egin ziran... Baina, zertarako balio dabe babes eta aitortpen honeek kasu honetan?

Bitxikeria moduan datu bat; zabaldu gura daben harrobiak abuztutik urriara bakarrik egin ahal izango dau behar Eusko Jaurlaritzaren aginduz. Hori Ferra xaguxar handiagaitik da, berau kumatzen edo hibernazioan egongo danean ezingo ei jako molestau... Nork sinistuten dau hori eta beste legeak beteko dabezanik?

Ondare arkeologiko eta antropologikoa izan arren, antza, egun EAEn daukagun legearen arabera home-tako margorik bako koba bat ez da babesleku bihurtuten. Hori pasau jakon Debako Praileaitzeko kobeari. Han, hemen moduan, harrobi batek mendi magal osoa jateko asmoa eukan, eta koban milaka urtetako giza aztarnak aurkitu diran arren, garai urrin haretako txaman baten harribitxi eta tresna ugari topau arren, koba desagertze bidean egon zan... atzen momentuan horretako margoak topau ziran arte. Baina halanda be, babes eremua hain da txikia ze harrobiak leherketak eragiten jarraituten dauala koba barruan zundaketa lanak egiten dabezan bitartean eta horma guztiak mobiduten jakiezala.

Hau holan izanda, harrobia martxan ipintek lehenago edo beranduago koba eta bere ingurunea desagertzea eragingo dauala seguru da tamalez. Geure ondare kulturalaren zati garrantzitsu bat galtzeako arriskua egiazkoa da. Gainera, nor daki bere garaian zabaldua egozan eta gaur egun tapauta dagozan gale-rietan zer topatu leiteken!

Zeanuriko Udalarari eskatuten deutzat:

Gitxi batzuek aberastu eta momentuko etekina besterik bilatzen ez daben proiektuak itxi daiguzan albo batera. Harrobi proiektu honeri ez itxi martxan ipinten.

Hartu daigun beste bidea. Emon deiogun bultzada bat geure ondare kulturalaren ezagutzeari. Izan be, holan herritar guztiok irabaziko dogu, herri moduan zein modu personalean, geure ondarea sustatu eta zabaldueteak kohesionau eta indartu egingo gaitu eta.

Geure ondorengoakaitik, aberastu daiguzan kobak.

EDURNE LANDAJO

## ERETXIA



### GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR

Epailea

### Monarkia ala demokrazia

Juan Carlos Erregearen abdikazinoak aukera barria emoten deusku eztabaida zahar hau barriz be plazaratzeko, argudio tradizionalak eta barriak sostengatzeko eta urtenbide benetan demokratikoa emoteko.

Egun honeetan errepikatu da eztabaida ez dala monarkia ala errepublikea, monarkia ala demokrazia baino. Bat nator planteamentu honengaz. Badakit demokrazia historiko eta sakonak egon badagozala, batez be Europako Iparraldean, baina demokrazia, definituz, sistema inperfektua danez, beti izango da posible demokrazia gehiago eskatzea eta gizarte eta erregimen politiko demokratikoagoak lortzea.

Estadu baten burua Koroaz betetea ez da arrazoizkoa. Talka egiten dau zentzu politiko eta filosofikoagaz. Talka egiten dau persona guztion bardintasun printzipioagaz eta persona guztiok postu horretara iristeko euki beharko geunkean aukerakaz.

Nok ebazten dau nok izan behar dauan estaduburua? Arrazoi eta printzipio demokratikoak dinoe herriak ebatzi behar dauala eta edozein herritarrek euki beharko leukeala horra helteako eskubidea. Zeren eta, monarkia sistema honek zulo ilunak eta kezka asko ditu hausnartzen hasten garanean. Zeren eta, zergaitik izango da estaduburua familia bateko kide bat? Zergaitik ez beste familia batekoa? Zergaitik jarraitu odol printzipio hori? Eta oinordekoa ezgai bada, edo alperre, edo lapurra, edo...? Zergaitik mantentzen beharko litzateke estaduburu bat nahiz eta delitugile bat izan edota kontrol demokratikoak onartzen ez baditu? Begi bistakoa da tajuzko erantzunik

ez daukien itaun asko egin daitekeela honen inguruan. Nik, behintzat, nire kezka honek eta beste asko ezabatuko leukezan erantzunik ez dot ondino entzun.

Hau, instituzino honen oinarrian eta abiapuntuan dagoan planteamentu guztiz demokratikoa besterik ez da.

Baina gaiak baditu beste ardatz interesgarri batzuk. Monarkia guztiak jatorrizko pekatu hori badabe be, hau da, herriaren legitimizaziorik eza, Juan Carlos Erregearenak baditu beste pekatu batzuk. Alde batetik, hasteko, bere gertuko jatorria, Francok izentautakoa da-eta. II Errepublikaren aurka estatu kolpe militarra emon ebanak, gerra krudel bat eragin ebanak eta inoz ez ikusitako errepresinoak aplikau ebanak, hain zuzen be. Francoren ideen arabera hezitako printzea, eta bere lana jarraitu behar ebana, Errepublika bat izan ez eiten. Eta ezin da esan pekatu hau 1978ko Konstituzinoak garbitu ebanik, zeren eta horrenbeste aitatzten dan "transizino ituna" zelan egin zan badakigu: oraindino indarrean egoan iraganari bildurrez eta etorkizun hobea lortu guraz.

Horreki gehitu behar jako monarkia honen beste legitimaziorik eza, jarduera zintzoak emoten dauana, hain zuzen be. Monarkia honen gainean apenas ez dakigu ezer: ez da ezelango gardentasunik egon ez diru kontuetan, ez eta beste arloetan be- ez da ezelango kontrolik egon -hau alderdi politiko nagusiai leporatu behar jakie, jakina- eta izugarrizko zensura gertatu da gai honeen inguruan.

Atzenik, ikusiko dogu zelango urtenbide juridikoa emon gura jakon orain arte borbaxezina zan eta erantzukizunetik libre egoan errege ohia. Honek be zer hausnartu emoten dau eta.

Zein izango da, bada, sistema monarkiko baldar eta ez demokratikoa mantentzeko arrazoiak? Niretzat, argi dago: demokraziari eta herritarren berebiki askok deutzien bildurra, podere guztien benetako kontrolari deutzien bildurra eta oinarritzko egitura politiko eta ekonomiko guztiak bere horretan jarraitu dagien askok egin daben apustu garbia.

Baina herriak badaki zer egin behar dan. Gero eta hobeto ikasten ari gara. Eta ikasgai honeri be urtenbide zuzena eta demokratikoa emongo deutzazu.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Aubi



Gaur egungo sukaldaritzan, batez be gozoki eta jogurtetan erabilten da frutu hau. Batuaz, ahabia esaten jako -eta gaztelaniaz, arándano-. Arratia inguruan baina aubia esan izan da (áubie, agoskatuta). Zergaitik ez berreskuratu? Gogoratu baso-frutuak moltsoaren barruan sartzean dala. Adibidea: "lehenago etxean ez zan egoten gozokirik, baina gure aitak basotik ume guztioi aubiak ekarten euskuzan".

**BATZ 50 urte**  
 BATZ, S. KOOP.  
 Torrea auzoa, 32  
 48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Enbata  
 Batz 50 urte

MONDRAGON 35



**LUMATUTEN****NEKANE  
INTXAURTZA****Lizzie 1884,  
Marimendi 2014**

**E**lizabeth Hawkins-Whitshed —Aubrey Le Blond, eta Burnaby andrea ezkondu ostean— da Alpeetako lau mila metroko mendi bat lehendabizikoz eskaletan lehena izan zan andrea. 1884. urtean egin eban mendizale irlandarrak balentria ha, Bishorn mendian. Harrezkero, Burnaby gaina izena dauka mendi bikiaren ekialdeko tontorrak.

Alpinismoaren kroniketan, ez dago andra mendizale asko lau mila metroko mendi bat konkistatu dauana, lehendabizikoz igo dauana.

Mendizaletasun klasikoaren artxiboetan, hiru andra aitatu ten dira arlo horretan:

– 1884. urtea Elizabeth Hawkins-Whitshed, Burnaby tontorra (Bishorn) 4.134 m.

– 1909. urtea Eleonore Hasclever Croz tontorra (Jorasses Handiak) 4.110 m.

– 1926. urtea Éveline Carmi-

chael Eveline tontorra (Aiguille du Jardin) 4.026 m.

Lizzie-ren igoera historiko horretatik, 130 urte beteko dira 2014. urtean. Eskalatzaila irlandarraren amets eta zoriona gogoratu gura doguz marimenditarrok aurten.

Elizabeth Hawkins-Whitshed omendu gura dau Marimendi taldeak. 1884. urteko abuztuaren 6an zabaldu eban mendizale irlandarrak bidea Bishorn tontorrera. Tontor bi ditu Bishornek, ekialdekora heldu zan Elizabeth.

Abuztuan barik, garagarrian abiatuko gara 25 bat marimenditar Alpeetara (tarteaz zapi andra arratiar eta Ane Hernani eskalatzaila).

Baginen, bagara eta izango... lelopean izango da ba Marimendi Taldearen udako urtekerea. Hasteko, Monte Rosako mendi moltsora eta ostean Alpe Peninoetara, Bishornera, eta Burnaby tontorrera.

Eta nortzuk gara marimenditarrok? Andrak gara marimenditarrok. Berrogei urtetik gorakoak. Euskaldunak gara bihotzez eta hitzez. Kirola maite dogu, batez be mendia, mendizaleak gara beraz, eta gure atseginerako eta gure moduko askorentzako akuitu moduan jardun gura dogu.

Euskal Herri gure agurrik eta omenaldirik zintzoena Lizzie-ri Burnabyrako bidea guri zabaltearren.

**ZERTZEAN****MAITE ARTABE URKIRI**

**M**usika, entzun Erdizka.  
Borobila, hurreratu.  
Pika.  
Erritmoa, sentidu Luze.  
Gorputza, mogidu Dobra.  
Ta-kor-ta, markatu Zote.  
Lurra, zapaldu Ebats.  
Laguna, begitu Ezker.  
Eskua, oratu Eskuin.  
Beroa, kanporatu

**Dantzakide, irrikide**

Aintzina.  
Izerdia, barruntau Zeina.  
Poza, barreiatu Jo.  
Giroa, bistaratu Jo zangoz.  
Emozioa, soltau Lau urrats.  
Barrua, dardartu Erdizka lauetan.  
Burua, atentu Gerria, errekupeau Besoa, altxau Oina, bizitu Antrexatak eta fini.  
Garagardoa, edan.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

**BEGI TXINDORRA**

**A**urten be Intxaurbizkar Kultur Alkarteak Igorreko jaien barruan III. Mille Baietz! antolatu dau. Oraingoan 2.156 kilometro egin dira euskerearen alde, batzuk oinez beste batzuk bizikletaz.

Hainbat behar egin eta gero oso pozgarria izan da jentearen parte hartzea.

Oraingo urteko plateamentua hau izan da: bere egunean biaje bat egin genduan Euskal Herri zehar, pasoko herrietan argazki bat eginez, "Mille Baietz" handik pasauta dagoala testigantza moduan. Ekintzearen egunean, partaide bakotzak kilometroak eginez, biaje bardina egin eban eta demostrau zan danon artean helburu guztiak bete ahal dirala.

**Edorta Zurinaga**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika  
Implanteak  
Estetika  
Marina Uriagaita Aldekoa Odontologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zurbideko 101  
R.F.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo Sasobide  
Balneario Areatza  
Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718  
[www.gruposasobide.com](http://www.gruposasobide.com) Tel.: 94 657 54 50



## UBIDE

# Sua eta akelarrea jaietan



Herritarrak arbola altxetan.

### Erredakzinoa

Gauza txar guztietatik librau eta desioak bete daitezcan sua biztuko dabe Ubideko plazan San Juan bezperan, urteko gau magikoenean. Sua, akelarrea eta Esti eta Olatzen kantuak girotuko dabe gaua. Herriko jaiak ospatuteko sei egunetako egitaraua prestatu dabe Ubiden.

Tradizino handiko ekitaldi ikusgarri batez hasiko dira jaiak. Izan be, herritar batzuk basora joan, arbol handi bat moztu eta herriko plazan altxauko dabe. Musikea eta jantzea, tortilla lehiaketea eta futbola be ez dira faltauko Ubideko jaietan.

Urtero lez, eszenalekua montetako eta desmontetako lanak, herritarrak egingo dabez jai giro ederrean. Montaje lanak hilaren 13 eta 14ko zapatu-domekan izango dira, eta desmontetakoak hilaren 27 eta 28an.

### Egitaraua

#### Bagilak 20, barikua

17:00etan, arbolaren bila.

19:00etan, arbola jaso ikurriuegagaz.

20:30etan, afari trukea.

22:30etan, pelota jaialdia. Kontzertuak.

#### Bagilak 21, zapatua

11:30etan, Ubide jantza ensaioa.

12:00etan, guraso eta umeen arteko jolasak.

17:30etan, futbola (Olalden).

21:45etan, afari herrikoia frontoian.

23:30etan, Dingiliskie plaza jantza.

#### Bagilak 22, domekea

Goizean puzgarriak.

18:00etan, Ubide jantza ekitaldia.

20:00etan, parrilladea.

20:30etan, erromeria.

#### Bagilak 23, astelehena

Tortilla Txapelketea.

Tortillaren dastaketea eta sariak.

Sua eta akelarrea.

Esti eta Olatzegaz kantuan.

#### Bagilak 24, martitzena

Meza ostean barauskarria.

Kale trikia.

18:30etan, Jare jantza taldea.

## BEDIA

# Sanjuanak, egunik luzeenak lagun artean

Txupinazoa barikuan bota arren, ordurako jai giroa dastatzen hasita egongo dira bediazarrak.

Izan be, aurreko domekan, bagilaren 15ean, XIV. Eskulangintza eta Elikagaien Azokea izan zan.



bueltetako autobusak egongo dira goizaldean, 02:30etan eta 04:30etan, hain zuzen be.

#### Bagilak 20, barikua

20:00etan, jaien hasikerako txupinazoa trikitixegaz eta dultzaiuegagaz alaituta.

Sardina jana.

21:30etan, kontzertuak: Zeinke eta Bilbomatiks.

Ostean, play-back eta erromeria Luhartz taldeagaz.

#### Bagilak 21, zapatua

12:00etan, VII. Paella Lehiaketarako izen emotea.

14:00etan, paellak aurkeztu.

17:00etan, kuadrilen arteko VI. Olinpiadak.

Mus Txapelketea, Batzokiak antolatuta.

22:30etan, kontzertuak: Larregi, Eskean Kristo eta Akerbeltz.

#### Bagilak 22, domekea

12:00etan, antxinako autoen eta motorren erakusketea.

Umeen esku pelotea.

Pintxo-pote trikitixegaz alaituta.

13:30etan, korru-jantzak.

18:00etan, esku pelota partiduak: kadeteak eta gazteak.

19:00etan, Deiene eta Jorgeren agerraldia.

21:00etan, frontenis finala.

#### Bagilak 23, astelehena

12:00etatik 13:30ak arte, puzgarriak eta frontoi jokoak.

17:00etatik 19:30ak arte, puzgarriak, tailerrak eta bitsa.

18:30etan, Tortilla Lehiaketarako izena emotea.

19:00etan, Ugel Txapelketea, Laguntasuna tabernak antolatuta.

20:00etan, tortillen aurkezpena.

21:00etan, herri afaria eta erromeria Jokaldi taldeagaz.

24:00etan, San Juan sua.

#### Bagilak 24, martitzena

12:00etan, meza nagusia.

17:00etan, XXIX Briska Txapelketea. (Bikotekide bat behintzat, Bediako).

Izena emotea 6 euro bikoteko.

18:00etan, nesken Pala Txapelketea.

19:30etan, txokolatea.

20:00etan, Areatzako Banda.

21:00etan, jaien amaierera.

### Erredakzinoa

Txupinazoaren ostean, bediazarrak bost egun eta bost gau daukiez disfrutetako. Barikuko gaua, mozturro gaua izango da. Aurten, herritarren sormena biztuko dauan gaia "teletisinoia" da.

Zapatu gauean, Larregi eta Eskean Kristo taldeen kontzertuak egongo dira. Gau honetan, Arratiara, Galdakaora eta Zornotzara

## ARRATIA

# Auzoetan be jaiak

### Erredakzinoa

Bedia eta Ubideko herriko jaietan biztuko dabe San Juan sua. Baita Areatzako Zubizarran, Arantzazun edo Lemoako Tallerretan. Zeanuriko Altxuagan, Igorreko San Juanen eta Dimako Oban sanjuanak ospatuko dabez; Zeanuriko Undurragan, eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.

#### Altxuaga (Zeanuri)

##### Bagilak 21, zapatua

15:00etan, txupinazoa.

21:00etan, auzo afaria.

##### Bagilak 22, domekea

12:00etan, meza nagusia, bertsolariak, zozketea eta barauskarria.

19:00etan, Bola Txapelketea, umeentzako jokoak eta erromeria.

##### Bagilak 23, astelehena

21:00etan, San Juan sua eta sardina

jana.

#### Bagilak 24, martitzena

12:00etan, meza nagusia eta barauskarria.

#### San Juan (Igorre)

##### Bagilak 20, barikua

20:30etan, jaien hasikerako txupina.

21:00etan, auzoko aparkalekua inauguratuko pintxo-potea.

21:30etan, erromeria Joselu Anayak taldeagaz.

00:00etan, sokamuturrea.

##### Bagilak 23, astelehena

20:00etan, sardina jana eta sua.

Arratia Musika Eskolako trikitilariak. Euskal erromeria.

##### Bagilak 24, martitzena

12:00etan, mezea eta trikitilariak.

#### Elorriaga (Lemoa)

##### Bagilak 28, zapatua

12:00etan, mezea.

13:00etan, kopaua.

13:15etan, herri kirolak.

14:00etan, Ugel Txapelketea nagusientzat eta Dardo Txapelketea umeentzat.

14:00etan, Paella txapelketea.

17:00etan, jolasak eta tailerrak.

17:30etan, Mus Txapelketea.

19:00etan, Bola Txapelketea.

20:00etan, txitxiburruntzia.

Eta egun osoan zehar, Gazteak ipinitako txosnea.

UBIDE

Jai batzordeak eta Ubideko Udalak

EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK

Gora Ubideko jaiak!

ETXERA

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

BEDIA

Bediako Udalak eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ



## LEMOA

Urigintzako Batzorde Berezia  
sortzeako proposamena ez da  
aurrera atera

## Erredakzioa

Bagilaren 4ko udalbatzan, ezezko botoa emon eutsien EAJ-PNVk eta PSEk, EH Bilduk urigintza batzorde berezia sortzeako egin eban proposamenari, eta ez zan aurrera atera. Batzorde honen helburua, Bilduren arabera, Lemoan atzen urteetan urigintzeagaz lotutako hainbat gertaera argitzea litzateke.

Planteamentu honen bidez "egiak azaleratzeko ariketa demokratikoa" egin gura izan dabela dinoe Bildutik. Baina oposizi-noko taldeen ezezko "harrigarri eta kezkarriagaz" egin dabela topo. Dana dala, lanean jarraituko dabela eta "jarkera oztopotzaile honeek ez dabe ekidingo hemen egin diranak eta ez diranak argitzen" dinoe Lemoako udal gobernu taldekoak.

## PNVren ustez "joko maltzurra"

EAJ-PNVk, barriz, gardentasuna eta herritarren benetako parte

hartzea defendiduten dauala dino, baina ez dauala onartzen "hauteskundeetan etekina aterateko joko maltzur hau". Urigintza batzorde arrunta badagoala eta Bilduren "jazarpena" salatuten dau: "Gure gestioaren politika konstruktibo oparoai izen ona kentzeako jarduten dau Bilduk Lemoan, ezelango argudio legal edo juridiko barik. Gaur egun ez dago mota horretako salaketarik" dinoe jeltzaleak.

PSEko zinegotziak be ezezko botoa emon eutsan Urigintza Batzorde Berezia sortzeari.



## ARRATIA

Zaintzaileak  
zaintzeako  
berbaldiak

## Erredakzioa

Dependentziaren inguruko berbal-di ziklo bat antolatu dabe Arratian, menpekotasuna daukien personeren zaintzan dagozanai informazioa emoteko. Berbaldiok Diputazioaren Zainduz programearen barruan dagoz eta Bedian, Diman, Areatzan, Artean eta Ubiden izango dira. Jagoleak euren buruak jago-tearen garrantziaz egingo da berba bertan, eta baita laguntzarako baliabideen informazioa emon.

Lehenengo berbaldia, bagilaren 12an izan zan Bedian, "Norberaren burua zaintzea, besteak zaintzeko" izenpean eta berbaldi hori Ubiden be emongo dabe hilaren 30ean, 17:30ean Jubiladuen aretoan.

Hilaren 17an, Diman, "Menpekotasuna familiaren markoan" izango da berbaldiaren gaia. Berbaldi hau Jubiladuen Aretoan izango da, arrastiko 17:00etan. Hurrengoan, zainketa familiarraz gainera, laguntzarako baliabideen barri emongo da Areatzako udaletxean, hilaren 24an, arrastiko 17:30ean. Hurrengo egunean, hilak 25, Arteako eskola zaharretan "Zaintzailea familian" izeneko berbaldia, 17:30ean izango da.

## Zainduz programea

Berbaldiok Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu ditu, Arratiako Udalen Mankomunidadearen laguntzeagaz eta Zainduz programearen barruan dagoz. Programa honen helburu nagusia, euren etxeetan bizi diran eta menpekotasuna daben persontzat eta euren senide edo jago-leentzat prestazino eta zerbitzuak garatzea da. Baita, "adinekoai zaintza afektiboagoa eta hurrekoagoa" emotea, eta aldi berean, adinekoak beren etxean egotea eta bizi-kalidate hobea izatea lortzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera.



## ARRATIA

Igorren manifestazinoa  
egin zan enplegua eta  
industria defendiduteko

## Igorreko manifestazinoa.

## Erredakzioa

Bagilaren 12an, LAB sindikatuak deituta, ehun bat lagunek manifestazinoa egin eben herritik zehar, "ehun industrialaren defentsan" eta eskualdearen "etorkizunaren defentsan".

Krisia deitu dabena hasi zanetik ehundaka lanpostu galdu dira Arratian, enpresa asko zarratu dira eta honen aurrean kontrapodere herritarra proposatzen dabe LABekoak "Eusko Jarularitza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren politika ekonomikoiei errotiko aldaketeta" emoteko.

## Enpresak zarratuten

"Enplegua suntsitzen jarraituten dabe eta enpresak ixten" salatu eban LABek. Negarran, 30 behargin kaleratu ditue. Ormazabalen, "etendura EEEda ezartzen dabiz eta beharginak kaleratzen, bezeroakaz miloetako kontratuak iragarten diran bitartean. Alfusen, FCC mul-

tinazionalak espedientea aurkeztu dau, behargin guztiak kaleratzea eta enpresa ixtea dakarrena".

Incoesan, urtebeteko burrukearen ondoren, gauzak okertu egin dira. Maiatzaren 23an, epaileak, beharginak kaleratzeko enpresek lege erreformeak marketan dauana baino ez deusela ordaindu behar, hau da 20 egun lan egindako urteko, eta 12 urte gehienez. Errekursoa aurkeztu dabe, baina "golpe handia" izan dala dino Pedro Mendo beharginak.

Incoesan, beharginen ustez, apropos egindako deskapitalizazioa egon da, dibidendoak modu eskandalugarrian banandu dira eta epaileak bere egunean arrazoia emon eutsen arren, EEEda baliobakotzen eta esanez ez egoala traslodoa egiteko arrazoirik, orain atzera egin dau, ulertzen gatxa dan epaia emonez. "Ez epaile, ez politikariak ez dira ausartu hau geratu edo zigortzera" salatu eban LAB sindikatuak Igorren.

## ARRATIA



## Arratiarrak 99. kilometroan.

Gure Esku Dagon arratiarren  
partaidetzea BEGITU.org-n ikusgai

## Erredakzioa

Erabakitako eskubidearen aldeko giza kateko argazkiak ikusgai dagoz gure webgunean. BEGITUren eremuko kilometroak agertzen dira bertan, 99. km eta 41. km., hain zuzen be. Arratiakoak Arrakilen egon ziran, 99. Km.an eta

Legazpin Zeberioakoak.

Partaidetzea espero baino handiago izan zan. Izan be, Arratiatik 23 autobus urten ziran eta Zeberio eta Ubidetik bana.

Aldarrikapen eta jai giro ederraren lekuko dira argazkiok. Zeurea bidaltzen badozu gure webgunean ikusi ahal izango dozu.

**KIRRU • ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

**GESOREAK**  
**basolo Emaldi**  
ENBEN ADMINISTRAZIOA  
Abokatuak  
☎ 620. 57.86.04  
✉ asierabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

## Alfus FCCren lantokia itxiko da

## Erredakzioa

Alfus FCCko zuzendaritzeak espedientearen dokumentazioa emon eutsen hilaren lehenengo astean langileen ordezkariak, eta espediente horrek Alfus Bedia lantokiaren itxiera dakarrela emon dau jakitera EH Bilduk. Hori dala eta, Foru Aldundiari eta Jaurilaritari "lidertgotza" eskatzen deutse Arratiako etorkizuna eregiteko. Arrazoi ekonomiko eta produktiboak arrazoitzen ditu enpresek espedientea aurkezteko, baina enpresa batzordeak (LAB, ELA eta UGTk) bestelako eretxia dauka. Batzordekoen ustez, "Alfusen gertatu dana da lantokia eta merkadua abandonau egin dituela, lan-gatazka hasi zanetik. Horren lekuko dira atzen urteotan izandako erregulazioak eta murrizketak".

EH Bilduk alkartasuna adierazo gura deutse Alfuseko beharginai eta, era berean, haren eskubide eta lanpostuen alde planteatuko dituen edozein urrats eta neuriri babesa agertu gura deutse.

## Arratia egoera larrian

Bilduren ustez, larrialdi egoeratik atera ezinean gabilz Bizkaian. Alarma gorriak biztuta dagoz aspaldi Arratia, egoera sozioekonomikoa jasanezina dalako eskualde honetan. "Atzen baten, isilpeko desindustrializazio prozesu bat gertatzen dabilela ikusi daiteke... Ebay, Plasticos Ormazabal, Laron, Tarabusi, Prefabricados Lemona, Incoesa eta orain Alfus". Baina, Arratia eta Bizkaiko desmantelamentu industrialaren aurrean Bizkaiko Foru Aldundiak paralisi egoeran jarraitzen dauala salatuten dabe Bildukoak

"Deialdi ozena egin geuntsen bai Diputazioari eta bai Jaurilaritari, Arratia eta Bizkaiko etorkizuna eregiteko beharrea inplikatu daitezana, baina interpellazio horren aurrean, ez dogu ezelango aurrerapausorik ikusi. Eskualde mailako egitura instituzionalak azken urteotan erakutsitako lidergotza faltea nabaria da".



## DIMA

# Rock kontzertuak eta bertsolariak jaietan

### Erredakzioa

Hilaren 26an, egunez botako dabe txupina Diman, herriko jaiak hasikerea emoteko. Ekitaldiz betetako lau egun izango dira: bertsolariak, batukadea, rock kontzertuak... Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketea be jokatuko

da hilaren 27an.

Egitarau trinkoa prestatu dabe Diman, aspertzeko aukerarik emoten ez dauana.

### Bagilak 26, eguna

18:00etan, Tortilla Lehiaketea.

20:00etan, txupinazoa.

Ostean, Irrien Lagunak kantu eta

jantza.

22:30ean, Obaneuke taldearen kontzertua.

### Bagilak 27, barikua

12:00etan batukada tailerra. Ikuskizunerako ensaioa.

Umeentzako tailerrak.

17:30ean, pelota partiduak. Open eta 22 urte artekoak.

19:30ean Euskal Herriko Lasto Altxatze Txapelketea.

20:00etan, talo dastaketea.

22:00etan, eskolako ikuskizuna.

22:30ean, Aiko.

24:00etan, play-back-a.

01:00etan, Gure Esku Dago.

01:30ean, Babel Covers.

### Bagilak 28, zapatua

11:00etan, umeentzako Dimako I. Duetloia.

13:00etan, bits jaialdia.

14:30ean, herri bazkaria.

19:00etan, eskupelotea. Umeen partiduak eta pala partiduak.

Batukadea.

22:00etan, Josu, Patxo and Ander-en emonaldia.

23:00etan, kontzertua: Kokein taldea.

24:00etan, Euskal preso eta igeslarien aldeko ekitaldia.

24:30ean, Eskean Kristo Rock taldearen kontzertua.

01:00etan, erromeria Zirkinik Bez taldeagaz.

### Bagilak 29, domekea

#### San Pedro Eguna

12:00etan, mezea.

13:00etan, 85 urtetik gorako omenaldi bazkaria.

13:30ean, jantzak.

14:00etan, paella desafioa.

19:00etan, bertso saioa: Unai Iturriaga, Jon Maia, Jokin Uranga eta Uxue Alberdigaz herriko plazan.

20:30ean, antzerkia *Desentxufatua*.



DIMA

Jai batzordeak eta Dimako Udalak  
Gora San Pedroak!

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**

Abel Lapatza Iza  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## ARRATIA

# Sexu askatasunaren aldeko kanpaina, bagilaren 28aren inguruan

### Erredakzioa



### Kartela.

Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuak, bagilaren 28a Sexu Askatasunaren aldeko Eguna dala eta, identitate eta sexu aukeren ugaritasuna, bisibilizatu, aitortu eta ahalbideratzeko kanpaina ipini dau abian, aurtun lehenengoz.

Horren barruan, Aldarte Elkartearen aurkezpena egingo da hilaren 19an, Areatzako Udal Areatoan. Kanpaina honeguz bat egiteko, Areatzako Emakume Foroak be, Kathleen Winter-en *Annabel*, eleberraren gaineko eztabaida antolatuko eban hilaren 13an, Isa Castillo literatura kritikariaren es- kutik.

Aldarte Elkarte Gay, Lesbiana

eta Transexualen arreta zentrua da eta homosexualidadea, lesbianismoa eta transexualidadearen arloak jorrotzen dauz. Horretarako, laguntza, hezkuntza eta sensibilizazio baliabideak martxan jartzeaz arduratzen da. Baliabideok herritar guztientzat dira, eta lesbiana, gay eta transexualen kolektiboaren inguruan dagozan arazo eta gatazkak sortutako intolerantzia konpontzea dabe helburu.

### Genero indarkeriari aurre egiteko jardunaldia hedabideakaz

Bestalde, Bardintasun zerbitzuak, Arratian behar egiten daben hedabideakaz topaketea antolatu eban bagilaren 4an. Bertan, genero indarkeriaren eta sexu-erasoen aurkako Osoko Planaren gaineko informazioa emon zan, eta informazio mota hori helarazoteko modu zuzenaren gaineko ezagutzak eta eretxiak konpartidu ziran, enfokea eta ikuspuntuaren aldetik zein berbakerearen aldetik. MBN Comunicacion, Gorbeialde Irratia, Deia eta BEGITUko kazetaria, zuzendaria eta Zertu Kultur Elkarte-ko zuzendaritzako kide batek hartu eban parte jardunaldi honetan.

Bardintasun Zerbitzua, genero indarkeriari eta sexu erasoari aurre egiteko Plan Integrala egiten dago eta horretarako Arratiako eragileak egiten ditu batzarrak, honeen ekarpenak eta eretxia jasoteko eta Plan Integralean sartzeako.

## ARANTZAZU

# San Pedro jaiak

### Erredakzioa

Sanpedroak ospatuten dira Arantzazun, baina San Juan bezperan be, San Juan sua biztuko dabe.

Sanpedroetarako, barriz, hiru egunetako egitaraua prestatu dabe. Buruhandiak, txapelketak eta erromeria egongo dira. Baita herri kirol erakustaldia eta pala partiduak. Eta igazko moduan, hip hop erakustaldia be egingo dabe gazteak.

### Bagilak 23, astelehena.

San Juan bezpera

20:00etan, herritarrentzako sardina jana.

21:30ean, San Juan sua.

### Bagilak 27, barikua

17:00etan, txupinazoa, euskal jantzak eta hip hop-a.

17:30ean, buruhandiak.

18:30ean, Tiragoma Txapelketea. Partaideak: Bizkaiko federatuak.

20:30ean, meriendea (txistorra).

20:30ean, Sustrai doinuak eta disko- tekea animatzaileakaz.

22:00etan, txokolata.

### Bagilak 28, zapatua

11:00etan, bolanderak eta kalejira buruhandiakaz

11:30ean, umeentzako jokoak (Ludotekea, tailerrak, rokodromoa, txutxu tren...) .

17:00etan, herri kirol erakustaldia (andrak): harri-zulatzea, arto

jasoketea, txingak eta abar.

19:00etan, Pala partidua (andrak). Bizkaiko Pilota Open Txapelketea 2014. Gomazko paleta partidua. Araba eta Bizkaia.

20:00etan, jana eta edana plazan.

22:00etan, erromeria Basajaun taldeagaz.

### Bagilak 29, domekea

#### San Pedro eguna

12:00etan, bolanderak eta musika.

12:30ean, meza nagusia.

13:30ean, IV. Paella Txapelketan paella aurkezpena eta Tortilla Txapelketan, tortilla aurkezpena.

14:00etan, jubiladuentzako kopa-paua frontoian.

16:30ean, III. Mus Txapelketea eta Briska Txapelketea.

16:30ean, I. Triatloia: ping-pong, mahai-futbol eta dama-jokoa.



## UDA

# Abentura barriak biziteko eskeintza handia

Bizitzako sasoi baten, denporea orokorrean, baina batez be udea, luze-luzea izaten da, baina ez horregaitik aspergarria. Izan be, udan umeak egunerokotasunetik kanpoko esperientzia barriak izaten dabez: itsasoan ibili, mendian gauean suaren ondoan gitarra bategaz kantuan orduak emon edota lagun min-minak egin. Oroitzapen horreek gogoan geratzen dira betiko. Arratiako eskeintzea ugaria da eta abentura barriak biziteko aukerea emoten deutse ume eta gaztetxoai.



Umeak begiraleagaz udalekuetan.

Argazkia: Zaztaparrak.

## Erredakzinoa

Umeak oporraldi luzeak izaten dabez, baina gurasoak ez hain luzeak eta familia askori gatxa egiten jakie uda partean beharrea joan eta umeen aisialdi luzeak atendidutea. Horregaitik, umeak ondo pasetako baina baita familiar lagunduteko asmoz Arratiako ia herri guztietan udaleku irekiak deritxanetan, goizetan, egon daitezke umeak olgetan, kirola egiten edo egiten diran txangoetan leku barriak ezagutzen.

## Udal udaleku irekiak

Arantzazun herriko begiralekaz

antolatu dabez udalekuok. Bi eta bost urte bitarteko umeak bagilaren 30ean hasi eta garagarriaren 11ra arteko goizetan egongo dira herrian bertan olgetan. Nagusitxoagoak, barriz, Lizarrara joateko aukerea izango dabe, bagilaren 30etik garagarriaren 5era, espeleologia, piraguismo, eskalada, uger egin eta mendian ibiltera, beste jarduera batzuen artean. Talde bi egingo dabez, umeen edadearen arabera: 6 urtetik 12 urte bitartekoentzat talde bat, eta bestea 12 eta 16 urte bitartekoentzat.

Areatzan, garagarriaren 1etik 11ra arte izango dira udalekuok,

5 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Umeak lehenengo asterako bakarrik ala hamabostaldi osorako apuntatu daitezke. Zerbitzua Suspergintza Elkartek garatuko dau eta umeak, ariketa fisikoa, trebakuntzea, lankidetzeta, alkarbizitza jarduerak eta partaidetzeta landuko dabez olgetan.

Artean be txanda bi dagoz. Lehenengoa bagilaren 23tik garagarriaren 4ra arte eta bigarrena garagarriaren 7tik 18ra arte. Bertan parte hartu ahal dabe 2002 eta 2010 urte bitartean jaiotakoak.

Txiki Txoko, Udalekuak, Uda Gaztea eta Ingelesa mintza praktika dira Bediako Udalak ume

eta gaztetxoentzat antolatutakoa. Bagilaren 30etik garagarriaren 11ra izango dira egonaldiak.

Diman, begiraleak kontratatetako lan-boltsa bat zabaldu eban udalak eta udalekuak garagarriaren 7tik 18ra izango dira.

Igorreko udako programazinoa Zaztaparrak taldearen eskutik dator. "Eskuekin ekin" lemapean, udaleku irekiak eskeintzen dabez 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat, garagarriaren 14tik 25era. Udako ludotekea bagilaren 23tik garagarriaren 25era izango da; astebete edade bakotzeko umeentzat. Parkean endredetan izeneko programan, kale animazinoa egongo da bagilaren 23tik garagarriaren 11ra.

Gainera udaleku ibiltariak be eskeintzen dabez garagarriaren 8tik 12ra Donostiatik Lekeitiora. Parte hartzaileak, paddle, surf eta jolasak egingo dabez eta atzen egunean, Lekeitiko kale antzerki topaketetan egongo dira. Garagarriaren 14 eta 15ean, Laidako kanpinean surf ikastaroa eta garagarriaren 16tik 18ra arrastiko 19:00etatik 22:00etara, tailer eta jolasak herritik zehar.

Sano programazino zabala eskeintzen dau udarako Lemoak. Udaleku irekiez gainera, ludoteka ibiltaria, Uda Gaztea, Bizikletaz zazpi eguneko urtekerea, egonaldiak Europan eta Auzolandegietan txanda bi eskeintzen ditu. Beste herrietakoak ez bezala, arrastietan izango dira udalekuok, Lemoan 16:30etik, 19:30era.

## Udalak eskeintzen

dabenez gainera beste eskeintza asko dagoz

## Arratian

## Sano programazino

zabala eskeintzen dau udarako Lemoak

**BOXPAL**  
618 59 81 71  
Pintura lanak  
Iturgintza  
Instalazio elektrikoak -aberiak  
Iehio eta ateen konponketa  
Pertsiana konponketa  
Igeltzerotza  
E-posta:boxpalboxpal@yahoo.es

**OPEL**  
**Ibaigane, s. Coop. Ltda.**  
Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tels. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15

Tel. 94 450 90 05 • email: info@aramotz.com  
**ARA MOTZ**  
Lanagintza O Jabetzen!  
Barrio Ugarana 2 de. 48041 Dorra - Bizkaia www.aramotz.com

**bbk**

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, 3. 48330 LEMOA Bizkaia  
Tel: 609 480 539 fax: 609 290 717

946.319.008  
658.195.091  
**Sartu eta ikusi!**  
**GALANTA**  
zure barruko arropa  
**M. JOSE**  
barrutik janzen zaitu  
Agirre Lehendakaria 23  
48.140 Igorre  
galanta@hotmail.es  
www.facebook.com/galanta

**HERRIKO BENTA**  
HOSTAL  
HERRIKO PLAZA,  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**Olaetxe**  
OPTICA ZENTRUA  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsinoa  
Lentilen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es





Uda Gaztea, 12 eta 14 urte artekoentzat, bost eguneko urtekera izango da, Hondarribian hasi eta Gipuzkoako kostaldean zehar. Iparraldera joateko aukera be izango dabe Lemoako gazteak eta Done Jakue bidean zazpi egunetako urtekera bizikletaz eskeintzen da. Izan be, Lemoako herria mobikortasun plan barri baten murgiltzen hasiko da eta honeri hasikerea emoteko antolatu dabe. "Herrian mugikortasuna lantzeko bizikletaz mugitu" izeneko ekintza hau garagarriaren 7tik 12ra izango da eta bertan 14 eta 30 urte bitarteko gazteak hartu daikie parte. Bestalde, txikerrenentzat, ludotekea udal igerilekuetan izango da eta 3 eta 12 urte bitarteko umeai emongo deutse zerbitzua.

Europar zeharreko biagea abuztuan izango da, 20tik 28ra bitartean, eta 16 eta 20 urte bitartekoak joan daitezke. Atzenik, Lemoako Memoria Historikoa berreskuratze beharrak jarraituko dabe, Eusko Jaurlaritzaren "Auzo-landegiak 2014" programeagaz.

Zeanuriko haur eta lehen hezkuntzako umeak udaleku irekiak izango dabez herrian. Bagilaren 23tik garagarriaren 11ra arte izango dira eta astero apuntetako

aukerea dago. Holan astebete, aste bi edo hiru asterako emon ahal dabe izena. Taldeak gitxienez 15 umek izena emoten badabe aterako dira aurrera. "Tituludun monitoreak, programazino zabala eta adin bakotxari egokitutakoa" izango dabe Zeanuriko umeak.

Zeberrioko Udalak be, 3 eta 14 urte bitartekoentzat udaleku irekiak antolatu ditu. Zerbitzua Zaztaparrak Aisialdirako taldeak emongo dau, edade bakotxarentzako egokitutako programazino eskeiniz. Bagilaren 23tik garagarriaren 4ra izango dira udalekuok, 10:00etatik 14:00etara eta txango bat edo urtekera dagoan egunetan 18:00ak arte.

#### Beste eskeintza batzuk

Udalak eskeintzen dabenaz gainera, ume eta gaztetxoak udan ondo pasetako aukera emoten daben beste eskeintza asko dagoz Arratian. Aurten hemeretzigarrenez, Zaztaparrak Asti Taldeak udalekua antolatu dau Abuztuaren 4tik 15era. Baratze, Bizkaiko herri txiki bat, izan da Arratiako umeen gozamenerako Zaztaparrak-ek aukeratutako lekua.

Aitagarrienen artean dago Arratia Futbol Taldeak antolatutako

kanpusa. Kirola euskal giroan bizi eta nesken futbola bultzatzeko helburua ditue udaleku honeek. Bagilaren 30etik garagarriaren 4ra eta garagarriaren 7tik 11ra, aste bakarra edo aste bitan izango da kanpus hau Urbietan zelaietan. Talde bi egongo dira, bata 6 urtetik gorako umeentzat, mistoa, eta bestea, 12 urtetik gorakoentzat neskeentzat.

Kirolagaz batera, hizkuntzak praktikatu gura izaten dabe gaztetxoak (edo euren gurasoak) udako oporretan. AEK-k be egin dau bere udako eskeintzea. "Euskal Herriatik muturretik muturrera" izenpean abuztuaren 2tik 16ra Gorbeiatik hasi eta Hiru Erregeen Mahaira, 16 egunegaz oinez zeharkatuko dabe Euskal Herria partaideak, Areatzatik abiatuta. Helburua, hamasei egunegaz euskeraz berba egitea, Euskal Herria hobeto ezagutzea eta mendiz mendi ibiltzea da. Egunegaz 20 bat km. egingo ditue eta "Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar eta bestelako mendigune ederretatik" pasauko dira.

Itsasoan edo mendian, herrian bertan edo atzerrian, hizkuntzak ikasten, kirola praktiketan eta beti lagun barriak egiten, udagirosan, abenturak bizitzeko sasoi heldu da.



Zaztaparrakek igaz Uitzin, Nafarroa, egindako udalekuetako argazkiak.

## ERREGAI ALTERNATIBOAK ETORKIZUNERA IRISTEKO

Gasolina eta gasolioa ordezkatzeko dituzten erregaien aldeko apustua egiten dugu Euskadin.

Sektore honetan erabilitako energia-iturriak era askotakoak izatea eta, ondorioz, petrolioarekiko mendekotasuna murriztea da gure apustua.

Apustu horretan, gas naturalak, elektrizitateak, bioerregai likidoak, petrolioaren gas likidotuek (PGL) eta hidrogenoak etorkizunera hurbiltzen gaituzte.

PERSONA  
HELBURIA

COMPROMISO CON  
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHIAGORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



**EVE** Ente Vasco  
de la Energía

www.eve.es



## IBILALDIA

## Hamazortzi urte, auzorik auzo

## Erredakzioa

Artea Auzorik Auzo, Arteako auzuneetatiko mendi martxeak hamazortzi urte beteko ditu aurten. Hilaren 22an izango da, Arteako Kirol Kultur eta Euskera Taldeak (AKKT) antolatuta. Martxa honen helburua Arteako auzuneak eta bide zaharrak ezagutera emotea da.

Urtero lez, ibilbide bi egongo dira aukeran. Ibilbide luzeak 33 km. ditu eta 1.400 m.ko desnibela; laburrak, barriz, 18 km. eta 800 m.ko desnibela. Luzea egin

gura dabenak 08:00etan urtengo dira plazatik, ordu erdi beranduego laburra egiteko asmoa daukienak.

Ibilbide luzeko ibiltariak San Migel Txikira abiatuko dira eta Santañañetik Zeberiorantza joango dira. Ibilbide laburrekoak Arteatik zuzenean joango dira Zeberiora eta Zeberiotik Murgara. Murgatik bueltan, homidurea izango dabe. Indarrak hartu ostean, ibilbide luzekoak Bikotxganera eta Upora igongo dira; laburrekoak, Upora zuzenean. Handik Arteako plazara joango dira danak, martxea amaituteko.



Artea goitik ikusita.

## MENDIA

## Behatzeko minez emon eban berbaldia Alex Txikonek Diman

## Erredakzioa

Birritan atzeratu egin behar izan zan, baina bagilaren 6an egin eban Txikonek berbaldia Dimako Gaztetxean. Lemoztarra maiatzaren 29an heldu zan etxera, Kangchenjungatik bueltan, oinetan kongelazioak dituala. Eta holan, minez, kontau ebazan espedizinoaren nondik norakoak, ehun baino gehiago argazkiren laguntzagaz.

Denis Urubkok egin eban tontorra baina behar handia egin eben bai Alex Txikonek, baita beste espedizinkideak be. Txikonek eta Adam Bielecki-k bidea zabaldu eben 8.400 m.tara arte eta Urubkok goraino falta zana. Beharra sano gogorra izan zala eta pisu handia aldean ibiltzen ebela kontau eutsan Diman batutako publikoari. Atzenean, nekeak eragina izan eban tonterarako gitxi falta zanean hartutako ebatzi batzuetan eta bueltea hartutea ebatzi eban

Txikonek, indar faltan, atzenengo metro gatxai ekitea lar arriskutsua zalakoan.

Momentu onak be ekarri ebazan gogora, espedizinkideen arteko sintonia, berbarako; batez be Denis Urbko-gaz daukana. "Gauza askotan, antzekoak gara. Urten aurretik antzera prestatzen gara"

esan eban Txikonek. Dana dala, Urubko-ren indarra harrigarria iruditu jakon lemoztarrari.

Katmandu asko aldatu dala atzenengo urteotan be esan eban lemoztarrak. "Danak gura dabe uri handietan bizi eta mendebaldeko bizimodua egin. Eta bizimodua asko garestitu da".



Txikon eta Urubko.

## RALLYA

## VI. Bizkaiko Balkoia Rallya Arratititik pasauko da

## Erredakzioa

Bagilaren 21an Euskadiko txapelketarako puntuagarria dan VI. Bizkaiko Balkoia Rallya izango da. Aurten, lehenengoz, Gorbeialde Racing alkarreak bultzatuta, Arratiako bideetatik, Dimatik, pasauko

da. Guztira 250 km izango dira, 90 erlojupekoak, Arratia eta Durangaldetik.

Euskal Herri osotik etorritako 70 talde inguruk hartuko dabe parte proba honetan. Parte hartuko daben artean, Kepa Kalejero eta Alex Gomez igorretarrak

be lehenengo aldiz pare hartzeako asmoa daukie eta horretarako Renault Clio Williams bat erosi dabe.

Antolatzaileak segurtasun neurriak beteteko eta seinalizatutako gune arriskutsuak errespetetako esakatzen deutsee ikusleai.





# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net  
Zabalik 07:00 - 19:00

## Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkai)



**Banatzaile ofiziala**















· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
· Garraio zerbitzua.



## AIZKOREA

# Atutxa bigarren Urrezko Aizkolarí Txapelketan

### Irati Urien

Amaitu da 2014ko Urrezko Banakako Aizkolarí Txapelketa. Floren Nazabalek irabazi dau aurtengo edizinoa 24'01" denporeagaz. Nafarra zan faboritua eta

beste behin txapela janztea lortu dau. Aitzol Atutxa bigarren postuagaz konformau behar izan da. 25'45" izan zan dimoztarraren denporea. Jon Rekondok, hirugarren egin eban, 27 minutu eta 45 segundotan parau eban erlojua.

Atutxak bere helburua bete ebal kontau deutso BEGITURI, probarik proba dana emon ebal. Bost proba eta hamabost minutu baino gehiago aizkoran egin ostean hamasei segunduko aldeagaz lehenengo postuan egoan Bizkaikoa. "Atzenengo proban indar faltan sentidu nintzan eta Florenek aurrera segidu eban bere nagusitasuna erakutsiaz -dino Aitzol Atutxak- baina pozik gelditu nintzan, berak be irabazteko sufridu egin behar izan eban eta".

## MENDI LASTERKETA

# Gorbeia Suzienerako izen emotea zabalik dago

### Erredakzinoa

Gorbeia Suzien Banco Mediolanum Sari Nagusia urriaren 18an izango da. Mendi lasterketan izena emoteko aukerea, astelehenetik, bagilak 16, zabalik dago. Gorbeia Suzien lasterketan zein martxan parte hartzeako aukerea galdu gura ez dauanak, hainbat arinen emon behar

dau izena. Lehenengo 4 orduetan 101 ziran lasterketan izena emondakoak eta 9 martxan izena emon ebenak-eta. Antolatzaileak gogora arazo gura dabe partaide kopurua mugatua dala, 550 lasterketan eta 350 martxan. Izen emotea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean egin behar da.

Aurten, Gorbeia Suzien Euskal


Koparen atzenengo proba izateaz gainera, ISF-k (International Skyrunning Federation) ISF Skyrunner National Championship 2014rako proba lez onartu dau. Holan, nazionarteko proben artean sartu da, Andorra & Spain Skyrunner National Series & Championship Txapelketako proba nagusia izango da-eta. Horrezaz gainera barri oso ona jaso dabe antolakuntzakoak ISFk munduko 21 lasterketa garrantzitsuenen artean kokatu daulako eta lasterketa horreen puntuazioaren arabera egingo da aurtengo korrikalari onenen ranking-a.

## ATLETISMOA

# Jokin Totorika atletismoko promesea, Euskadiko Txapeldun

### Irati Urien

Jokin Totorika Areatzakoa da eta 14 urte egin barri daukaz. Futbolearen eta atletismoan dabil gaztea baina gehien bat bigarren honen ganean ibili da berbetan BEGITUGAZ. Hasi barria dala esan leiteke Jokin, aurtengo Maratoi Txikian urte bat egin dau atletismoaren munduan.



Jokin Totorika.

Zornotzako Atletismo Eskolara joaten da. Arina dala eta, eskola berebetean dabilen Areatzakoa lagun batek apuntetako animau eban Jokin, eta holantxe egin eban. Ez oso luzeak ez oso laburrak, 1000-1500 metroko distantziak egiten ditu. Orain dala hila eta erdi inguru Euskadiko Txapeldun gelditu zan eskolartekoan; mila metro egiteko 2'48" baino ez ebazan behar izan.

Aurtengo Arratiako Maratoi Txikia be irabazi dau bere kategorian aretaztarrak. Arteatik Igorrera hogeit hamar minutu eta zeozertxoko denporan egin eban galapan. Gaztetxoa dan arren sano emoitza onak lortuten dabilanez, orain kadeteakaz joango da Euskadiko Txapelketara. "Hiru minutu eta hamar segundetik behera egiten badozu kadeteakaz joan zeinke Euskadiko Txapelketara", azaldu dau Totorikak. Kadeteetan onenak 2'48"ko denporan ei dabiz, eta Jokinek irabazteko ahalegina egingo daua adierazo dau.

# Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

\* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€  
edo 75  
Euroren truke



## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetetxakoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarano HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilengoak, Hezkuntza zikloak

## arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igoerre Bizkaia

## RUGBY TABERNA

• Egin zaitez bazkide!  
• 09:30etik zabalik  
• Asteburretan pintxo bereziak



[arratiko.zekorrak@gmail.com](mailto:arratiko.zekorrak@gmail.com)  
<http://santxisme.blogspot.com/>



## PAILAZOAK

# Pailazoak Bizipoza kutsatuko deutsee ume eta nagusiai

Bagilaren 26an, Pirritx Porrotx eta Marimotots pailazoak, Bizipoza ikuskizunaren emonaldi bi egingo ditue Igorreko kiroldegian: lehenengoa 17:00etan eta bigarrena 19:30ean.

**Erredakzioa**

Pirritx, Porrotx eta Marimototsez gainera, beste personaje batzuk be badagoz Bizipoza ikuskizunearan, Panpoxa furgonetea, kasurako. Izan be, ikuskizunaren argumentuak kantuan eta jantzan, bizipozez eta auzolanean, mundu barri bat dagoala aurrean kontetan dau.

Sarrerak 7 eurotan dagoz salgai. Lasarte Aretoko lagun txartela izan



ezker 5 euro ordaindu behar da, (ikuskizunean erakutsi beharko da txartel hori). Kutxabaneko oroetarako kutxazainetan eta interneten [www.bbk.es](http://www.bbk.es) helbidean dagoz salgai. Sarrerak agortzen ez badira egunean berean erosi daitezke kiroldegian.

**Bizipoza**

Ikuskizunaren argumentuaren arabera, pailazoak irripidean zehar abiatzera doaz Panpoxa furgonetan, Txernobyldik jatorkien laguna aireportuan jasoteko. Baina Marimotots Panpoxa martxan jartzen saiatuten danean, ezin dau: motorra puzkerka hasi da, ke artean eztulka. Matxuratuta dago plazaren erdian. Hori dala eta, arduratuta dagoz gure lagunak, aireportura zelan joan ez dakiel. Baina plazan dagozala, laguntasuna ez jakie faltauko.

## AKKB EGUNA

# Herri kirolak, musikea eta pelotea Areatzan AKKB Eguna ospatuteko

**Erredakzioa**

Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak bere eguna ospatuko dau hilaren 21ean. Horretarako, herri kirol desafia eta herri bazkaria antolatu dabe batzordekoak, beste gauza batzuen artean. Udabari Txapelketako esku pelota finala be jokatu da Areatzan.

Herri kirolak 10:30ean hasiko dira plazatik frontoirako kalejira batzuz. Lehian bost talde izango dira honako frogak honetan: ingudea, zakua, gizon-andra probak, txingak, sokatira eta trontzan. 14:30ean, Areatzako zultzaile taldeak jardungo dau. Horren ostean bazkaria izango dabe AKKB-koak.

Arrastiko 18:00etatik aurrera poteo musikatua egingo dabe herriko tabernetatik zehar eta 20:00etan umeak esku pelota partiduak jokatuko dabez frontoian. Horreen os-

tean, Udabari esku pelota finala jokatu da.

Jaia amiatuteko, 23:30etan Zirkinik Bez taldeagaz erromeria egongo da Gaztetxean.

**Mendi urtekerea eta txistu kontzertua**

AKKB Eguna ospatuteaz gainera, beste ekintza batzuk be antolatu dabez hamabostaldi honetarako. Holan, bagilaren 28 eta 29an, Dulaura mendi urtekerea daukie. Mendia baino musikea gurago dabenentzat, hilaren 28an be bai, Bilboko Euskaldunara urtekerea antolatu dabe, Bilboko Txistu Bandaren X. urteurrena ospatuteko kontzertu berezia ikusteko. Kontzertu honetan, Bilboko Txistu Bandagaz batera, Kepa Junkera, Niko Etxart, Gozategi, Enaut Elorrieta, Sorotan Bele eta Los Cinco Bilbainos izango dira.



## LEHIAKETEAK

# Hamabi mila euro bananduko ditu Kmovie-k saritan

**Erredakzioa**

Kmovie euskarearen erabilera eza gutzera emon gura dauan gazteak zuzendutako ikus-entzunezkoen lehiaketeak, hamabi mila euro bananduko dauz saritan. Lehenengo saria 6.000 eurokoa, bigarrena 4.000koa eta hirugarrena 2.000koa izango dira. 18 eta 30 urte arteko gazteak hartu daiekie parte, modu indibidualean edo taldean. Inskripzioa egiteko eta piezak bialtzeko epea urri lehenengoaren 1era arte da. Inskripzioa [www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net) webgunean egingo da.

Kmovie, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Kirol eta Gazteria Zuzendaritzak, Azkue Fundazioagaz lankidetzan, antolatuten dauan lehiaketea da.



## LEHIAKETEAK

# Arratia Institutuko ikasleak "kerik bako ikasgela" saria jaso dabe

**Erredakzioa**

Arratia Institutuko ikasleak, eskualdeko Kerik Gabeko Gela saria jaso dabe. Saria Aitor Sorriketa Mankomunidadeko presidenteordeak emon eban eta Ander Etxebarria, June Etxebarri, Edorta Ormazabal eta Inge Uriartek jaso

eben. Saritutako lana, "berak erretzen gaitu" marrazkia da, Ander Etxebarriak egindakoa. Kerik Gabeko Ikasgelak programea, DBHko lehenengo zikloko ikasleen artean tabakismoa prebeniduten lagunduteko Europako programa baten barruan dago. Osakidetzak eta Eusko Jaurleri-

tzako Osasun eta Konsumo Sailak deitu eben lehiaketea. Izan be, adituen ustez, tabako konsumoak eragiten dituan arriskuakaitik, nerabezaroan esku hartzea garrantzi handikoa da, konsumoa eguneroko bihurtu aurretik, hain zuzen be. "Kerik Gabeko Gelak gazteenak tabakoaren gainean berba egin eta esperientziak trukatzeko programa bat da. Hainbat ikerketak frogatu dau programa eraginkorra, efikaza eta errez ezarteko dala" dinoe Osakidetzatik.

**Ikasleen konpromisoa**

Bizkaian 62 ikastetxek 232 ikasgelak eta 5.232 ikaslek hartu dabe parte ekimen honetan aurtengo ikasturtean. Bizkaian Barakaldoko Alazne Ikastetxeko DBH 2ko ikasgelak irabazi dau, baina eskualde eta udal mailako sariak be emon dira, gazteen beharra eta konpromisoa errekonoziduteko.



Aitor Sorriketa irabazleakaz.

## LEHIAKETA

# Dimako kalenturak I. Ipuin Erotikoen Lehiaketea

**Erredakzioa**

Basaurin Euskarabila alkarteak antolatuten eban ipuin erotikoen lehiaketearen hutsunea beteteko asmoz, Dimako Udalak eta liburutegiak "Dimako kalenturak. I. Ipuin Erotikoen Lehiaketa" antolatu dabe. Bertan 16 urtetik gorakoak hartu ahal izango dabe parte eta hiru sari emongo ditue.

Lanok urri lehenengoaren 1etik 22ra aurkeztu daitezke. Originala, hiru kopia eta egilearen datuak dituan gutunazala, beste handiago baten sartuta udaletxera bialdu

behar da, edo posta elektronikoz [kultura.dima@bizkaia.org](mailto:kultura.dima@bizkaia.org)-era. Kasu honetan, ipuina fitxategi baten bialduko da "ipuina" izenagaz eta beste baten egilearen datuak "egilea" izenagaz. Ipuin bakarra bialdu ahal dau persona bakotzak.

**Sariak**

Hiru sari emongo ditue antolatzaileak. Irabazleak 600 euro jasoko ditu, bigarrenak 400 euro eta Arratiako lanik onenaren tzako be 250 euroko saria dago. Sari emotea urri bigarrenaren 24an izango da.





## MUSIKEA

# Musikeak eta suak bat egingo dabe Areatzan



### Erredakzioa

Areatzan, hilaren 20an, Europako Musika Eguna ospatuteko, Musika-sua piroteknia eta musika buz-tartzen dituan kontzertu-ikusizuna eskeiniko dabe. Udalak, Areatzako Bandak eta Astondoa Pirotekniak antolatuta, Areatzako Sakramenti-noen parkean izango da, gaueko 22:30ean.

Bandakoak, Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean, pelikulen soinu bandak joko ditue. Musika egitarauan, beste batzuen artean, John Williamsek, Darrol Barryk eta Ennio Morriconek zinemarako konposatutako obra ezagunak dagoz. Piroteknia efektuak beste edozein "bakarlairren" moduan izango dira kontzertuaren barruan, beste instrumentu guztiakaz harmonia betean. Aukeratutako beharren eritmoak eta sonoridadeak finkatuko dabe efektu

bakotxaren estiloa: "konposizioen inpaktua indartuko dogu: kasu batzuetan, fase eritmikoak markauko doguz; beste batzuetan, pintzelkada leunak emongo doguz, ikutu magikoak eskeiniz eta emozinoagaz eta sorpresa faktoreagaz jokatuz", azaldu dau Izaskun Astondoak.

Ikuskizun honek, maisutasun handia eskatzen dau musikarien aldetik eta ez dira asko, horretara ausartzen diran musika bandak. Areatzakoa da gitxi horreetako bat. Berrogei musikari inguruk joko dabe Bandan.

Josu Basozabal Areatzako alkateak ekimen honen "izaera barrizaila eta jai girokoa" nabarmendu dau. "Barriz be, Musikasua aldeko apustua egin dogu. Musikearen eguna ospatuteko modu bikaina iruditzen jaku. Bertan, entzumena eta ikusmena batera joango dira, eta datozen guztiak gustauko jakie ekimena", azaldu dau Basozabalek.

## LEHIAKETEAK

# Jaietako kartel lehiaketea antolatu dabe Zeberion ume eta nagusientzat



### Erredakzioa

Zeberio Jai Batzordeak eta Udalak Sandoniak 2014 iragar- teko jaietako kartela aukeratu-

teko lehiaketea antolatu dabe. Lehiaketak, egia esan, bi dira: batean nagusiak hartu daikie parte eta bestean umeak. Nagusien kartel irabazlean Sandoni jaietako

egitaraua iragarriko da eta umeen kartelean, umeentzat prestatu- tako ekitaldiak.

Nagusien kartel lehiaketako karteletan testu hau agertu behar da "ZEBERIOKO SANDONIAK 2014. Abuztuaren 28tik irailaren 2ra". Irabazleak Zeberio-ko produktuen otzara bat izango dau sarritzat.

Hamalau urte arteko umeak aurkeztu daikiez euren lanak, umeai zuzendutako lehiaketa. Kartelaren testua hau da: "SANDONIAK 2014. UMEEN EKINTZAK". Parte hartzaile bako- txak oparitxo bat jasoko dau.

Lehiaketa bietako lanak, bagila- ren 25era arte entregau ahal dira Zeberio-ko udaletxean.

## ARRATIAKO KORUA

# Koruak jasotako dirua Caritaseri emon deutso

### Erredakzioa

Bagilaren 2an Bilbora joan ziran Arratiako Koruko Batzordeko bost kide, Agate Deunaren bezperan jasotako 3.500 euro Caritaseko zuzendariari emoteko. Diru hori, preminan dagozanai helduarazo gura deutso Arratiako Koruak, eta Caritasek behar ona egiten dau- la arlo horretan eretxita, aurreko urteetan legez, erakunde horri emon deutsie diru hori aurt- be.



Arratiako Korukoak Caritasean.

## DUNBA

# Areatzako eskoleak ikasturte amaierako jaia antolatu dau

Ekintzak Areatzako eskolan bertan eta herriko kaleetan burutuko dira.

### Areatzako eskolako LH 2ko ikasleak

Bagilaren 20an, Areatzako eskolako ikasturteari amaierara emoteko, jaialdi bat antolatuko dabe. Antolaketa lanetan guraso alkartea, irakasleak eta ikasleak dabiz, eta egun horretarako

ekintza ugari prestatzen dagoz.

Guraso alkartetik eskolako familia guztiak ekintzen prestaketan parte hartzeako konbitea luzatu jakie, eta jadanik batzuek prest dagozala adierazo dabe.

Jaia goizeko hamarretan eskolan hasiko da, eta arrastiko

lauretan eskolan amaitu ondoren, herrian zehar jarraituko dau.

Goizerako euskal jokoak eta tailerrak antolatu dira. Arrastian, 6. mailakoia agurra egin ondoren,

karaokea eta jantzakaz amaierara emongo jako eskola esparruko ekitaldiari. Ondoren jaialdia herrira zabalduko da.

Herrian ekintza eta erakustaldi



Areatzako eskolako patioa.

Argazkia: Nikola Eguzkiza.



desbardinak egingo dira. Honeen artean, ikasleak eskolaz kanpoko ekintzetan prestatutako ikuskizunak egongo dira: zirkoa, jantzak...

Ikasturtean zehar egindako lanari bukaera jai giroan emoteko asmoz, antolaketan dabizenak gogotsu dabiz prestaketa lanetan.

Ea merezidutako udako oporrak luzeak eta zoragarriak diran!



## AGENDEA

**BAGILAK 17  
AREATZA**

20:00etan AKKB antolatuta, Bilboko Orkestra Sinfonikoko perkusionisten kontzertua. Udal Aretoa.

**BEDIA**

17:00etan, tailerra: murala eta jaietarako apaingarriak, liburutegian.

**DIMA**

17:00etan, berbaldia: "Menpekotasuna familiaren markoan" Jubiladuen Aretoa.

**IGORRE**

Hilaren 30era arte, Rosa Calzadaren erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Aretoa.

**LEMOA**

19:00etan, Jose Mari Agirretxeren berbaldia "Bere sentimendu, bere pentsakera eta bere bizipenak". Jubiladu Etxearen goiko aretoa.

**BAGILAK 18  
AREATZA**

20:00etan AKKB antolatuta, Enriki Solinis & Euskalbarrokensamble. Udal Aretoa.

**BEDIA**

Kurso amaiera. Liburutegian. 17:00etan, urtean zehar egindako tailerren erakusketea. 17:30ean, tailer barrietarako proposamenak. 18:00etan, merienda.

**BAGILAK 19  
AREATZA**

19:00etan, Aldarte Elkartearen aurkezpena. Udal Aretoa.

**DIMA**

19:00etan, kuadrilen arteko desafioa antolatzeko batzarra Elexalde gelan.

**BAGILAK 20  
AREATZA**

Areatzako herri eskolako jaiak.

Arratiako Musika Eskolak antolatuta musika herrian zehar. Herriko txoko desbardineta musika eskolako instrumentu guztiak entzungai.

22:30ean, Areatzako Udalak, Areatzako Musika Bandak eta Astondoa Piroteknika antolatuta, Musikasua ikuskizuna.

Sakramentinoen parkean.

**BEDIA**

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**IGORRE**

Jaiak San Juan auzunean. Egitaraua 5. orrialdean.

20:00etan, Arratia posta txartelean liburuaren aurkezpena liburutegian.

**LEMOA**

16:30ean, kurso amaierako jaiak eskolan.

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, stretching saioa. Jubiladuen Etxeko goiko aretoa.

**UBIDE**

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**Ocho apellidos vascos filma Igorren**

Emilio Martinez-Lazarok zuzendutako *Ocho apellidos vascos* (*Zortzi euskal abizen*) komedia arrakastatsua Lasarte Aretoa egongo da aste-koien bitan. Lasarte Aretoa, zapatu-domeka batez egoten dira norma-lean pelikula, zapatuetan 22:00etan eta domeketan 19:30ean, baina film honek euki dauan arrakastea ikusita, lau emonaldi eskeintzea ebatzi dabe Igorren. Aste Santuan turismoak gora egin eban Gipuzkoa eta Nafarroan, pelikulea filmatzen zuten lekuetan.

*Ocho apellidos vascos* komedia bat da, Borja Kobeaga eta Diego San Josek idatzitakoa. Aktore lanak Clara Lago, Dani Rovira, Carmen Machi, Karra Elejalde eta Alfonso Sanchezek egiten dabez.

Bagilaren 13an eta 14an egon zan ikusteko aukerea eta bagilaren 21ean, zapatuz, 20:00etan eta 22an, domekaz, 19:30ean, pantailaratu-tuko dabe barriro Lasarte Aretoa.

**BAGILAK 21  
AREATZA**

04:00etan, Gorbeiko kurutzera igoera goizaldean. Tontorean eguna zabaltzen ikusi eta bertan gosalduta. Parkeak antolatuta.

II. AKKB Eguna. 10:30ean, herri kirol desafioa. 14:30ean, Areatzako harri-zulataleak plazan. Bazkaria. 20:00etan, umeen pelota partiduak eta ondoren Udarbarri Txapelketaren finala. Frontoian.

**DIMA**

09:00etatik aurrera, VI. Bizkaiko Balkoia Rallya.

**IGORRE**

20:00etan, zinea *Ocho apellidos vascos*. Lasarte

Aretoa.

**ZEANURI**

Altzuagan jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**BAGILAK 22  
LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

**IGORRE**

19:30ean, zinea *Ocho apellidos vascos*. Lasarte Aretoa.

**BAGILAK 23  
ARANTZAZU**

20:00etan, herritarrentzako sardina jana. 21:30ean, San Juan sua.

**ARTEA**

Udaleku irekiak hasten dira.

**IGORRE**

11:00etatik 13:00etara, eta garagarriaren 11ra arte, Parkean endredetan, kale animazioa hurreraten diran umeentzat. Udako ludotekea hasten da. Zaztaparrak-en eskutik.

**LEMOA**

16:30ean udaleku irekiak.

19:00etan, San Juan sua Tallerretan.

**ZEANURI**

09:30ean, udaleku irekiak hasten dira.

**ZEBERIO**

Udaleku irekiak hasten dira.

**BAGILAK 24  
AREATZA**

17:30ean, berbaldia: "Menpekotasunaren zainketa familiarra eta laguntzarako baliabideak" udalekuean.

**BAGILAK 25  
ARTEA**

17:30ean, berbaldia: "Zaintzailea familian" eskola zaharretan.

**BAGILAK 26  
DIMA**

San Pedro jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**IGORRE**

17:00etan eta 19:30ean, Pirritx, Porrotx

eta Marimototsen *Bizipoza* ikuskizuna. Kiroldegiko frontoian.

**BAGILAK 27  
ARANTZAZU**

San Pedro jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**IGORRE**

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

**LEMOA**

19:30ean, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

**ZEBERIO**

20:00etan, hileko atzen barikua, preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

**BAGILAK 28  
AREATZA**

18:30ean, Euskaldunara urtekerea. "Hamar urte, hamaika lagun" Bilboko Txistu Bandaren X. urteurrena ospatutako kontzertua. Urtekerea Eleiz portikuan.

**LEMOA**

San Pedro jaiak Elorriagan. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**BAGILAK 29  
AREATZA**

08:00etan, Lamino Mendi Taldearen urtekerea. Aldamin (1.373 m.) eta Dulau. Eleiz portikuan.

**LEMOA**

Sanpedroak Elorriaga auzoan.

**BAGILAK 30  
ARANTZAZU**

09:00etan, udaleku irekiak hasten dira.

**BEDIA**

Txiki Txoko, Udalekuak, Uda Gaztea eta Ingelesa mintza praktika hasten dira.

**LEMOA**

09:00etan, Uda Gaztea abiatuten da. Gipuzkoako kostatik.

**UBIDE**

17:30ean, berbaldia "Norberaren burua zaintzea, besteak zaintzeak" Jubiladuen Aretoa.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU****SALGAI**

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

**AUTOA SALGAI**

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

**HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA****SALGAI**

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l\_laztana@hotmail.com.

**FURGONETEA SALGAI**

Nissan Primastar 2000dci 115 zaldidun furgonetea saltzean dogu, kanpinerako prestatua. 2009 urtekoa 120.000 km. Carry bike eta toldoa dauka. Telefonoak: 629 624 688 eta 637 861 936.

**VENDING MAKINEA SALGAI**

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeko kapazidatea

dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

**EROSI****TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE**

Trikitixa esku soinu erosiko neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

**DANERIK****TRASTELEKU BILA**

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizipoza* ikuskizunerako.

Alaitz Olabari (Igorre)  
Joserra Undagoitia (Dima)



**2** Etxegana Hotelak emondako gaua bi lagunentzat.

Puri Barrenetxea (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Hondo, barru. Letra bat. 2.- Hegazti mota bat. Emea ez dana. 3.- Abadea. 4.- Boroa. Asko. 5.- Gixi falta. Letra bat. Bike. 6.- Samur. Bokala. 7.- Leku orotako. 8.- Ingalaterran hartzean da. Adio. 9.- Bokala. Kantsau.

### GOITIK BEHERA

1.- Selenioa. Surpeko ule. 2.- Mosua. Haize. 3.- Gizonezkoen izena. Birritan, asmo. Uranioa. 4.- Ugaztun primata mota bat. 5.- Nitrogenoa. Bi erromatar. Antojua. 6.- Igarle. Moabeko andrea, Bibliako pertsonajea. 7.- Txispa. Errutenioa.




Topau itsaso inguruetan dabilzan zazpi animalaren izenak.



# AKI MI KO

Iman Olatu



**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

*Pinturas Arratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

**NAIARA** Hartz Klinika  
Lehendakari Agirre, 10  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Avda. Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizinoa eta fabrikea Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Baitonak: A1, A, B78, B  
Lehendakari Agirre 34  
Tfnoa: 94 673 71 52  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@autoeskola.net

**AKETEGIA**  
**GAV 5 LORA**  
**IGORRE**

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDARUN HIGAZTINEN  
ASIGURUTAN  
Salme Arria, 3 Tfnoa: 94 673 41 41 - Faxa: 94 673 41 41 - 4148 IGORRE

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 54 IGORRE-BIZKAIA

*axular*  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
Lan Publikoak  
Indusketak  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskolaraz bain ezinez  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 63  
e-posta: unida.AU@euskalnet.net



## ANDER MANTEROLA

**"Gazteak euskera gehiago egiten dabe helduak baino"**

Bagilaren 1ean, Zeanurin omenaldia egin eutsien Ander Manterolari. Urte luzeetan Labayru Ikastegiko zuzendaria izan da eta orain zuzendaritzeari itxita, (Adolfo Arejita da Labayru Ikastegiko zuzendari) beharrean jarraituten dau zeanuriztarrak. Labayrukoak, baje baten bezperan, denpora tartetxo bat egin eutsan BEGITURI hainbat itaun erantzuteko. Ikastegiak Derion daukan Seminarioko egoitzan hartu ginduzan.

Manterolak Lovainan eta Parisen egin ebazan ikasketak. Euskal Herriko Atlas Etnografikoko zuzendaria eta Euskal Bibliotekako sortzailea da, beste gauza askoren artean. Abadea be bada, eta batez be eleizgizon moduan definitzen dau bere burua.

**Erredakzioa****Bagilaren 1ean zeure herrian omenaldia egin eutsuen. Zer begitandu jatzun? Zelan sentidu zinan?**

Ni neu, apur bat harrututa. Nik uste dot gehiago hartu dodala Zeanuritik, nik emon baino. Bertakoak dodaz hizkuntzea, ohiturak, umetaroa Zeanurin emon dot, gurasoak, lagunak, eta abar. Umetaroa da bizitzaren arorik inportanteena. Umetaro zorionsua izan ala ez, eragina dauka bizitza osoan. Eta ni pozik bizi izan nintzan Zeanurin umetan.

Omenaldia gauza samurra izan zan. Batez be, eleizan egin zan, ni neu eleizakoa nazalako.

**Labayrun topau zaitugu, ez zagoz jubilauta? Jubiletako asmorik?**

Jubilauta bai, baina nire beharrak ez dauka jubilaziorik. Ez abade moduan, ez bestela. Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren 8. bolumena egiten gagoz. Nekazaritzaren gainekoa da hau. Aurrera egindako batzuk, abeltzaintza, hileta ohikuneak, baita jaiotzatik-ekontzara arteko ohikuneak, umeeen jolasak eta etxeko elikadurea dira.

Bolumen honek 17 atalburu izango ditu eta 6 bat dagoz idatzita. Iker-tuta osorik dago, erredakzio fasean dago. Proiektu honetan, 60 ikerlari inguru dagoz Euskal Herri osoan.

Etniker proiektuaren barruan dago Euskal Herriko Atlas Etnografikoa. Guztira, hamabi edo hamahiru tomo izango ditu. Bakotxa, mila orrialde ingurukoa. Atlasak izan gura dau lan zientifiko bat, eta horregaitik jarten doguz ez bakarrik ikerlariak eurak, baita barrieroileak be. Atlasean jasoten da hartu dogun kultura, XX. gizaldian Euskal Herrian bizi izan dan herri kultura. Barandiaranek sortu eban asmo hau 1973an. Bizkaiko taldea, hementxe bertan sortu eban Euskal Bibliotekan. Geugaz batera beste bat Gipuzkoan, eta Araban eta Iparraldean be sortu ziran ikertzaile talde txoak. Bost taldeok Etniker osotuten dogu.

**Euskerearen arloan, ohorezko euskaltzaina zara eta Labayru Ikastegiko zuzendaria izandakoa. Esan leike Labayru Ikastegiak bizkai euskerea arautu eta maila jasoa emon deusala euskalkiari. Zein egoeratan dago euskerea, bizkai euskerea zehatzago, momentu honetan?**

**Ze aldaketa ikusten dozuz Labayru Ikastegia sortu zanetik gaur egunera?**

Nire ustean, euskereak irabazi egin dau izena, prestigioa dauka gaur egun. Beste hizkuntzen pare egin da eskubideetan. Orain izana... gazteak gehiago egiten dabe helduak baino. Omenaldian esan neban, Saramagok edo esan ebala "mi patria es la lengua". Euskaldun batek aberria hizkuntzan dauka. Euskerea galdu ezker, geure izakerea galduko dogu. Horregaitik pozten naz gazteak euskeraz gehiago egiten dabelako.

Autobusean noanean, beti fijetan naz zein hizkuntzatan egiten dauan berba jenteak. Errumaniarrak, errumanieraz egiten dabe, sahararrak arabez eta euskaldunak espainolez askotan. Hori da problemarik handiena. Euskerea da agoz egiten dana. Idazkerea ez da hizkuntzea, hizkuntzearen errepresentazioa baino. Agoz egiten dana, esaten dana, kontetan dana... hori da hizkuntzea. Horregaitik bizkaiera benetako hizkuntza da. Baina batua be bai.

Lehen kritikau egiten zan asko eskolako metodologia, ikasten genduzalako urruneko errekak eta mendiak eta hurrekoak ez (Gorbeia, Lekanda, Anboto). Hizkuntzeari jagokonean be, zergaitik ez hasi hurrekotik? Horregaitik gure ikastaroetan, guk daukagun lema bat hauxe da: "dakigunetik ez dakigunera". Hau da, bizkaieratik batuara.

Dana dala, euskereak ez dauka diferentzia handirik euskalkien artean. Eta euskalki barruan be diferentziak dagoz: Bizkaia barruan badagoz diferentziak eta Gipuzkoan be bai. Baina hori beste hizkuntza askotan be gertatzen da, Norvegian edo Italian, kasurako. Euskera onak Euskadi guztiak ulertzen ditu. Onak eta ikasiak.

**Zeintzuk izan dira bizkai euskeran lortutako gauzak eta zeintzuk ondino erronka diranak?**

Beti egon da konpleju bat Bizkaian, euskerarik onena Markinan egiten dala; eta Gipuzkoan, Tolosan, baina hori da gehien bat leku horretako idazleak egon ziralako.

Euskalkiak dagoz baina euskerea bakarra da. Gure helburua euskerea da, euskera osotu bat.

Nik batuaz be idatzi dot, baina bizkaiera be zaindu behar dogu.

**Ez bakarrik euskera aldetik, lan etnografiko handia egiten dau Labayruk. Gure eskualdean, lehengo ohituren gaineko interes handia dagoala esango neuke. Halan da? Galduta dagoan bizi-modu bat jasotea baino zerbaist gehiago da etnografia?**

Gauza bat da etnografia eta beste

gauza bat ohiturak jaietan barrizatzea. Barrizatze horreek gaurko gizarteak aurrerakoan lanak, trebetasuna eta abar ezagutzeko egiten dira. Floklorean dago hori.

**Euskal Bibliotekako sortzailea be bazara. Azaldu zer dan Euskal Bibliotekea. Non daukaz fondoak, zeintzuk diran, edo nork konsultau daitez?**

Udako Euskal Ikastaroa dala eta 1970ean hasi nintzan euskereari buruzko liburuak batzean: bai gramatikak, egoan literatura apurra, euskal gaiak... batez be gerra aurrekoak. Hor sortu zan Euskal Bibliotekea. Gero hartu nebazan doban apaiz biren bibliotekak Gabirel Manterola osabarena eta Jon Gurutz Ibarutxi Ubidekoarena. Doban. Honeekaz asmoa handiagotu egin zan, Euskal Herriari jagokozan liburuak batzeako asmoa: hizkuntza, historia, etnografia, zuzenbidea, biografiak... Atzen 50 urteotan horretan ibili naz. Hau izan da egin dodan lanik nabarmenena. Orain Euskal Bibliotekak 60.000 titulu ditu. Gainera aldizkariak, BEGITU bame. Aldizkari zaharrak 400 baino gehiago dira eta barriak beste 1.500. Informatizauta dago dana. Hortik aparte mapak, karteldegia...

Dokumentazio gune bat da ikerlariarentzat eta liburuak hizkuntza askotan dagoz. Artxibategiak be badaukaguz.

Ez dira errez irakurteko liburuak, ikerketak egiteko baino. Hona datozenak dira idazleak, irakasleak, tesia egiten dabizanak...

Horrezaz aparta, Labayru Ikastegiak

liburuak ez ditu bakarrik gordetzen, argitaratu be egiten ditu. 300 baino gehiago argitaratu doguz. Baita erreskateak, galduta dagozanak, ez diranak argitaratzen, Labayruk argitaratzen ditu. Holan ondare bat egin dogu.

**Zeure burua batez be eleizgizon moduan definitzen doz. Zure ustez, zein da eleizeari jagokoa lekua gure gizarte honetan?**

Erantzun teologikoa emongo deusut. Eleizearen eginbeharra da Jesukristo gure artean bizirik iraun arazotea. Berak esandakoa eta berak egindakoa iraun arazotea. Gero, beste gauza bat da, eleizan ez garala danok izan behar dogun modukoak.

Atzo (bagilak 8) Pentekostes eguna izan zan eta Espiritu Santuak esan eban hizkuntza guztietan zabaldu behar dala kristautasuna. Eta horregaitik, eleizeak lotura handia dauka kultureagaz.

**Uste dot oporretan zoazala, ezta?**

Ez dira oporrak, ibilaldia da. San Pablok kristautu ebazan uriak ikustera goaz hainbat arratiar. Greziara (Tesalonika, Filipos, Berea, Atenas eta Korinto) Turkiara (Efeso) eta barriro Greziara (Patmos). Patmos-en San Juanek Apokalipsia idatzi eban. Horreek danak San Pablok kristinutako uriak dira.

Jakitun baten gidaritzapean goaz, Aita Perikoren gidaritzapean, hain zuzen. Oso jakituna da Bibliaren gainean eta hizkuntza asko dakiz. Guztira 18-19 bat arratiar joango gara. Batez be Arantzazutik, Arteatik, Areatzatik eta, gehienak, Zeanuritik.



# www.begitu.org

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

